

# Oiartzun

## OIARTZUNDIK BIRAKA



Egileak:

Kattagorri taldea

LH5B

# Oiartzun gozatu

Gorri



## Aurkezpena

Kaixo, lagunak! Ni Gorri naiz. Oso abenturazalea naiz eta ingurukoek oso ausarta naizela esaten didate erronkak egitea oso gustoko dudalako eta primeran ateratzen zaizkidalako.

Nahi al duzue egun zoragarri bat pasatu nire herrian altxorak ezagutuz?

Ongi etorri gure herrira!

## Presentación

Gauzak ikasteko jakin-min handia daukat, horrela ikasi nuen gure herrian dauden altxor ederrei buruz.

# Oiartzun begirada batean

## Kokapena

Oiartzun Euskal Herriko ipar-ekialdean kokatuta dago. Errenteria, Lezo, Irun, Lesaka eta Goizueta ditu mugakide. Oarsoaldean, Donostialdean kokatzen da.

## Erliebe-elementuak

Oiartzun, harana da. Baditu beste erliebe-elementu batzuk, mendiak, errekek eta zelaiak, esate baterako.

## Bestelako informazioa

Mendi, erreka eta naturagune ugari daude, animalia askorekin.

Herriko jai aipagarrienak Ihoteak eta Xanistebanak dira. Ihoteetan intxixuak, basandreak eta sorginak jaisten dira eta Xanistebanak herriko jai nagusiak dira.



# ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

## OIANLEKU



Oialeku Aiako Harria Parke Naturalean kokatuta dago. Leku zoragarria da naturaz gozatzeko eta gizakiaren historiaren parte izan diren mairu-baratzez gozatzeko.

Orain dela asko Oianleku mendian borda bat eraiki zuten zuhaitzez inguratuta, Oianlekun Cromlechak daude eta euren azpian ilobiak. Cromlechak Oiartzungo garrantzitsuenak dira.

# ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

## EGIAR



Egiar Oiartzungo Ergoien auzoan kokatuta dago. Garai batean herrixketako edo tribuetako buruzagien, xamanen eta pertsona garrantzitsuen errautsak lurperatzeko erabili ohi zuten.

Oiartzunen 7 mairu-baratz inguru daude. Gehienetan alde batetik bestera 5 eta 6 metroko distantzia egon ohi da. Mairu-baratz batek erdian duen harriak ia 2 metroko luzera hartzen du. Duela gutxi arte, mairubaratzak ozta-ozta ikus zitezkeen pinuz beterik zeudelako. Eta orain zuhaitzak bota ondoren, askoz gehiago nabarmentzen dira.

# ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

## Arizmendienea



"Hemen sartzen dena bere etxean dago". Hori jartzen du Arizmendienea etxeko paretean. Aialde kalean dago, Elizalde auzoan. Arizmendienea jauregian XVIII. eta XIX. mendeetako familia dirudun bat bizi zen, garai hartako elementu ia guztiak kontserbatu dira eta lehen eta bigarren solairuetan ikus daitezke.

2020an leku garrantzitsu bezala izendatu zuten. Orain, museoa eta informazio bulegoa bilakatu da, museora bostetik bederatzira arteko pertsona kopurua joan daiteke, ostiraletan doainik joan zaitezke 12:00etan.

# ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

## Manuel Lekuona Liburutegia




Oiartzungo liburutegia, elizaren ondoan kokatuta dago. Manuel Lekuona liburutegiaren baimena maiatzaren 6an sinatu zuten, Aitor Etxeberria alkateak eta Manuelek aukeratutako ordezkariak, Oihana Lekuonak.

Eraikina lehendik ere bazegoen, ospitalea zelako San Juan batailatzailearen etxea izan aurretik, baina batailatzailearen etxea zenean zati batek ospitalea izaten jarraitzen zuen.

500 liburu inguruk osatzen dute eta aurten, liburutegiak 30 urte beteko ditu. Jende dexente joaten da irakurtzera eta ikastera, istorio askoko eta liburu askoko lekua delako.

# Zirkuituaren mapa



## Legenda

Norabidea



Erreferentzia-puntua



Abiapuntua



Interesguneak



Helmuga





# Zirkuituaren deskribapena

## Zure zirkuituaren lehen urratsa



- Abiapuntutik lehen interesgunera joateko:

### Deskribapena

**Abiapuntua Arizmendienea da. Oartzungo plazaren alboan dago, Aialde kalera iritsi eta ezkerretara aurkituko duzun bigarren eraikina da. Bisitatu dezakezu ibilbidea hasi aurretik.**

# Zirkuituaren deskribapena

## Zure zirkuituaren bigarren urratsa



Lehenengo interesgunetik bigarren interesgunera joateko:

### Deskribapena

Arizmendieneatik Manuel Lekuona liburutegira joateko, Aialde kaletik joan Doneztebe plazaruntz, han Xabale parean biratu eskuinera eta joan aldapa gora. Gure bigarren interesgunea maldaren bukaerako ezkerreko eraikina da, liburutegia.

## Zure zirkuituaren hirugarren urratsa



Bigarren interesgunetik hirugarren interesgunera joateko:

### Deskribapena

Manuel Lekuona liburutegitik, Egiarrera joateko, igo Learreko malda eta hartu Fraileen bidea. Joan aurrera, eta Gurutze bidea topatzean sartu bertara. Joan aurrera eta har ezazu Pikogarate bidea. Segi aurrera eta aldapa handi bat ikustean igo aldapa eta Egiar gainean egongo zara.

# Zirkuituaren deskribapena

## Zure zirkuituaren laugarren urratsa



- Hirugarren interesgunetik laugarren interesgunera joateko:

### Deskribapena

**Egiarretik Oianlekura joateko, hartu Pikogarate Bidea segi aurrera, ondoren sartu Gurutze Bidera eta segi aurrera, Martintxo kaleraino. Han segi aurrera, gero, joan Karrika guneraino, sartu eta segi aurrera. Sartu Oianleku bidera eta aurrera jarraituz gero Oianlekura iritsiko zara.**

## Zure zirkuituaren bostgarren urratsa



- Laugarren interesgunetik helmugara joateko (helmuga eta abiapuntua berbera da):

### Deskribapena

**Arizmendienera itzultzeko hona etortzeko egin dugun bide berdina egingo duzue baina bidegorritik, Altzibartik pasa eta ondoren, zuzen jarraitu bidegorrian. Kiroldegira iristean, Arraskularre kalea hartu eta Arizmendienera igo. Horrela amaituko duzu zirkuitua.**

# Bisitariენტzako gomendioak

Ekar ezazu kamera, gauza harrigarriak ikusiko dituzu eta.

Jaso ezazu zure txakurraren kaka.

Algunos animales comen comida especial, por favor, no le déis tu comida.

No echéis la basura ni en el parque, ni en el monte.

Do not forget to bring an umbrella.

Always walk on the pavement, please.